

EAEko IRAKASLEAK

EPE 2022

Gaur [EHAA](#)n hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratu dira. GOGORATU bihartik aurrera hogeit hamar egun naturaleko epea irekiko dela hautatutako izangaiek deialdiaren 12.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkezteko [Hezigune](#) bidez. Horren laburpena gure webgunean eskura dago: [EPEn plaza lortu ondoren, zer egin behar dut?](#)

Bestalde, bihartik aurrera ere berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera izango da.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Maisu-maistren lekualdatze-lehiaketaren behin betiko zerrendak atzo argitaratu ziren Hezigunean. Bihar gainerako behin betiko esleipenak argitaratuko omen dituzte.

IKHA/COCU

-Bihar ikasturte hasierako **esleipenen ebazpena eta egutegia** argitaratuko omen dituzte [hezkuntzaren webgunean](#).

-Astelehenean, ekainak 24, 'lanerako prest egoera' aldatzeko epea zabalduko da: justifikatutako uko egite egoeran daudenek euren egoera aldatzeko aukera izango dute 'lanerako prest egoerara' (soilik IKHArako).

-Gaur argitaratu da lehentasun eskubidea bertan behera uzten duen [Agindua](#) (ordezkoentzat).

-HITZALDIAK: urtero bezala, prozesua azaltzeko eta zalantzak argitzeko hitzaldi irekiak antolatuko ditugu uztailaren hasieran Gasteizen eta Bilbon (goizez). Laster datak jakinaraziko ditugu.

PREST_GARA 2024-2025

Ekainaren 7an behin-behineko zerrendak argitaratu zituzten. Erreklamazioak eta uko egiteko epea Hezigune bidez, ekainaren 21era artekoa da (barne).

UDAKO KOBRAKETA BERRESKURATU!!

www.steilas.eus